

ERANTZUNAK "EPELEKO ESPARRUAN SARBIDEAK EGOKITU ETA HERRIBIDEAK ALDATZEKO LUR MUGIMENDUAK EGITEKO OBRAK" PROIEKTUARI BURUZKO ARGIBIDE ESKAERARI (2013/04/15)

Zk.	MOTA	GALDERA	ERANTZUNA
1	ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEKIN AGIRIA 16.2. Klausula. Kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena	Agirian aipatzen da obraren zenbateko osoaren arabera Osoko Eraikuntza Asegurua egin behar dela, eta horren ordainagiria aurkeztu behar dela. Galdetu nahi nuen ea zentzurik ote duen lehiaketako esleipendun izan baino lehen ordainagiri hori aurkezteak, edo nahikoa ote den aseguruaren kotizazio-eskaintza bat aurkeztearekin, aseguru horren kontratazioarako konpromiso-gutunarekin batera, baldin eta azkenean esleipendun bagara.	Nahikoa da aseguru-polizaren proposamena aurkeztearekin, esleipendun suertatuz gero, hura kontratatzeako konpromiso gutunarekin batera.
2	ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEKIN AGIRIA 16.2. Klausula. Kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena	Erantzukizun Zibileko aseguruak 2M euroko muga izan behar duela aipatzen da. Gure polizak 1,5M euroko muga du, eta aurreko kasu batzuetan, horrelako egoeretan egon garenean, berariazko aldaketa puntualak egin ditugu obran, eskatzen den mugara iristeko. Ulertzen dut aukera hori onartuko litzatekeela, aseguruaz zabalteko konpromiso-gutun bat aurkeztearekin nahikoa dela, gero esleipendun suertatuz gero.	Nahikoa da aseguru-polizaren proposamena aurkeztearekin, hura kontratatzeako konpromiso gutunarekin batera, gero esleipendun suertatuz gero.
3	ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEKIN AGIRIA 16.2. Klausula. Kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena	Lehiaketan eskatzen diren hiru sailkapenetik bi ditugu, baina ez B-2-E mailari dagokion sailkapena. Gabezia hori konpontzeko, jakin nahiko genuke ea derrigorrez proposatu behar dugun aldi baterako enpresa batasuna sailkapen hori duen bazkide batekin, edo aitzitik, nahikoa ote den bazkide horren konpromiso-gutuna aurkeztearekin.	Herri Administrazioen Kontratuaren Legearen testu bateratuko 63. artikulua: Kaudimena eta gaitasuna kanpoko bitartekoekin osatzea. Kontratu jakin bat egiteko behar den kaudimena eta gaitasuna egiaztatzeako, enpresaburua beste erakunde batzuen kaudimenean eta bitartekoetan oinarritu ahal izango da, erakunde horiekin dituen harremanen izaera juridikoa dena dela ere, eta, betiere, kontratua gauzatzeko behar diren bitarteko horiek badituela egiaztatzen badu. Kasu horietan, A gutun-azalean, dokumentu honetako 1. eranskina aurkeztu behar da "Adierazpenen notario-aktaren erudia, baldin eta lizitatuak esparru akordioan onartua izateko eskatzen den kaudimena duela frogatzeko, beste erakundeen kaudimenean oinarritu nahi badu" izenekoa.
4	ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEKIN AGIRIA 16.2.f.2 klausula. Kaudimen tekniko eta profesionala	Agiriak adierazten du azken 5 urtetan antzeko hiru obrak gauzatzeko berariazko esperientzia eduki behar dela (bai xedeari ba zenbatekoari dagokionez). "Antzeko" terminoa anbigua iruditzen zaigu, eta horregatik egin nahi genuen bilera, ez baita ukagutu argi zein irizpide erabili behar dugun. Lur-mugimendu bolumen askoz handiagoko obrak egin ditugu, eta hemen eskatzen diren luzera eta altuera gainditzen duten hormigoi armatuzko hormak ere eraiki ditugu; beraz, obra hau egiteko erabateko gaitasuna dugula pentsatzen dugu.	Xedeari eta zenbatekoari dagokionez, antzeko hiru obra aipatzen direnean, zenbateko bereko edo zenbateko handiagoko obrei buruz ari gara.
5	ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEKIN AGIRIA 16.2.f.2 klausula. Kaudimen tekniko eta profesionala	Obra-buruak bete beharreko baldintzetan, Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniari titulua izan behar duela zehazten da. Jakin nahiko genuke hori derrigorrezko baldintza den, edo B gutun-azalaren 1. irizpidean puntuazio gutxiago sortzen duen soilik. Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniari bat derrigorrez eduki beharko bagenu, bat kontratatzea pentsa genezake, baina, kasu honetan, pentsatzen dut nahikoa izango dela konpromiso-gutun bat aurkeztearekin, azkenean esleipendun suertatuz gero hori betetzeko.	Obra-buruak Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniari titulua edukitzea kaudimeneko derrigorrezko baldintza da.
6	ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEKIN AGIRIA 16.2.f.1 klausula. Kaudimen ekonomikoa eta finantzariora.	1. Puntua. "Urteko kontuek emaitza positiboak islatu beharko dituzte, gutxienez aipatutako ekitaldietatik bitan". Urteko kontuetarako, zein ekitaldi hartzen dira kontuan? 2009tik 2011ra, edo 2010etik 2012ra, azken hori itxi ondoren; 2012ko urtea oraindik urteko kontuan aurkezteko epean egon arren? Bigarren aukera posible bada, urteko kontuen orde, emaitza kontuaren eta egoera-balantzearen zinpeko aitorpena aurkeztu al daiteke?	Merkataritza Erregistroan 2012ko urteko kontuak aurkeztu badira, 2010 eta 2012 bitarteko kontuak kontuan hartu ahal izango dira.
7	ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEKIN AGIRIA 16.2.f.1 klausula. Kaudimen ekonomikoa eta finantzariora.	3. Puntua. Konpainiak ez badu kontu-ikuskaritzako txostenik eduki behar, puntu hori efekturik gabe geratzen da, edo nolabait ordezkatu behar da?	Konpainiak ez badu kontu-ikuskaritza txostenik eduki behar, puntu hori efekturik gabe geratzen da. Erantzukizunpeko aitorpen baten bitartez, kontu-ikuskaritzako txostenik behar ez dela adierazi behar da.
8	ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEKIN AGIRIA 16.2.f.1 klausula. Kaudimen ekonomikoa eta finantzariora.	4 eta 5. puntua. Nahikoa al da aldi behin kontratatzen dugun aseguru-konpainiaren poliza-proposamena aurkeztearekin, esleipendun suertatuz gero, hori kontratatzeako konpromisoarekin batera? Dokumentazio hori aurkeztearekin nahikoa dela uste dugu.	Nahikoa da aseguru-polizaren proposamena aurkeztearekin, esleipendun suertatuz gero, hura kontratatzeako konpromiso gutunarekin batera.
9	ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEKIN AGIRIA 16.3 klausula, B gutun-azala, "Balio-judizio baten arabera diren balorazio-irizpideak".	Jakin nahi dugu "Oharra: gehienez A4 motako 5 folio, bi aldeetatik, lerroarte arrunta, arial 10 eta A3 motako 3 folio, alde batetik" TXOSTEN TEKNIKORAKO bakarrik ote den, edo B gutun-azal osorako.	Txosten Teknikorako bakarrik da.
10	ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEKIN AGIRIA 16.2. Klausula. Kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena	R.Civil ta T.R.Construccioneko polizen konpromezu eskutitzak prestatzeko zuen N.I.F.a behar dugu.	GHKren IFK A20970208 da.
11	ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEKIN AGIRIA 16.2. Klausula. Kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena	Pleguak irakurtzen,Obra-buruarengatik eskatzen da: obran gertu bizitzea. Gustatuko litzazuke adieraztea obran gertu bizitzeak zer esan nahi duen. ¿Durango ondo dago?	Si, es suficiente en Durango. Deberá vivir en un radio de 100 km de la obra.
12	ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEKIN AGIRIA 16.2. Klausula. Kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena	"Epeleko eremurako sarrerak moldatzeko eta aldameneko bideak eraldatzeko lur mugimenduak egiteko proiektua"-ren obran lizitazioarentzako behin behineko bermea egiteko, zuen I.F.K. eskatzen didate.	GHKren IFK A20970208 da.